



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abuztuaren 22koa. Horren bidez, Sopuertako Udalari gomendatzen zaio ebatz dezala eskorga bide baten legezko egoera, aurretik nahitaezko instrukzioa eginda.

Aurrekariak

1. (...) andreak erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen Sopuertako Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez baitiote erantzunik eman, ezta jarduerarik bideratu ere, inguruan beti egon den eta egun (...) ikastetxeko zenbait instalaziorengatik (berotegiak eta espaloiak) aldatuta dagoen eskorga bidea prestatzeari. Egoera hori bistako kalteak ari zaizkio eragiten, ezin baitu egurrik atera haren jabetzako (...). poligonoko (...). lurzatitik.

Udalak hitzez adierazi dio gai hori ez dela haren eskumenekoa, bidearen titulartasunaren inguruko eta aurkeztu duen eskaera alde batera uzteko arrazoen inguruko idatzizko erantzunik jaso ez badu ere. Ildo berean, esan zuen Bizkaiko Foru Aldundiari gaiaren berri eman ziola.

2. Arartekoak Sopuertako Udalari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari eskatu zien kexak planteatzen zituen gaien gaineko informazioa emateko.

Sopuertako Udalak erantzunez esan zuen espedientea izapidetzen ari zela eta Katastro Zerbitzuari txosten bat eskatu ziotela, gauzatu ahal izan ziren izapideen inguruko beste agiririk edo informaziorik aurkeztu gabe.

Horren harira, Nekazaritza Sailak jakinarazi zigun interesdunak mozketari txandarako eskaera aurkeztu zuela, basozainarekin harremanetan jartzeko eta egurrak haren lurzatitik atera ahal izateko zuen arazoa azaltzeko aukera aprobetxatuz. Haren eskumenen esparruan, basozainak eta mendi ingeniariak interesdunari informazio osoa eta aholkularitza eman zioten eta ez dago jasota aldundiari arazo horren inguruko idatzizko eskaera egin dionik.

Udal erantzunaren zehaztasunik eza ikusirik, landa bide publikoak defendatu eta berreskuratzeaz arduratzen den administrazio eskudun gisa, gaiaren inguruko jarraipena egin genuen eta, hala, udal zerbitzuek eta interesdunak egiaztatu ziguten ez zela jarduera berririk aurrera eraman hizpide dugun eskorga bidearen egoera juridikoaren ezagutzan aurrera egiteko.

3. Erreklamazioa ikusita, kexaren planteamendua eta azaldutako aurrekariak aztertu ondoren, egokitzen jo dugu hurrengo gogoetak zuri helaraztea:





Gogoetak

1. Tokiko erakundeek haien ondasunei dagokienez eskumen handiak dituzte. Hala, besteak beste, ikertzeko eskumena eta ofizioz berreskuratzeko eskumena, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiaren 44.1. a) eta c) artikuluan xedatutakoarekin bat. Ondare publikoa defendatzeko eskumen handi horiek legezko ahalmenak baliatzeko betebeharrak korrelatiboa ezartzen dute, hain zuzen, ondasunen bat jabetza publikokoa izan daitekeela pentsatzeko zalantza edo seinaleren bat dagoenean.

Hala ere, batzuetan administrazioaren jardunik ezarekin, erantzunik ezarekin eta ondare publikoa defendatzeko legezko ahalmenak ez baliatzearekin topatzen gara. Espediente horien izapidea konplexua da lehengo artxiboak eta beste erregistro batzuk ikertu behar baitira, horrek bidezko agiriak biltzeko dakartzan zailtasunekin. Dena den, beharrezkoa da egindako eskaera edo salaketari arrazoizko denboran erantzuna ematea ondasun publikoen defentsa interes orokorrekoa baita.

2. Hala, OAren 45. artikulua xedatzen du tokiko erakundeek haien *jabetzatik ondorioztatzen diren ondasunen eta eskubideen egoera ikertzeko ahalmena dutela, betiere, hori jasota ez badago, ondasun eta eskubide horien titulartasuna zehazte aldera. Ikerketarako ekintza horren baliatzea ofizioz erabaki ahal izango da, korporazioaren edo partikularren salaketaren bidez (OAren 46. artikulua).*

Hortaz, ikertzeko ekintzarako eta, hala badagokio, edukitza berreskuratzeko dagokion ekintzarako behar den aurrekontua honako hau da:

- Hizpide dugun ondasuna eta eskubidea jabetza publikokoa *"izatea"*.
 - Ondasunaren titulartasuna jasota ez egotea eta ikerketaren bidez titulartasuna zehaztea.
 - Hizpide den ondasuna jabari publikoko ondasuna da, erabilera publikoari atxikita dagoela aintzat hartuta.
3. Bestalde, OAren 48. artikulua ezartzen du, salaketa edo jakinarazpena jaso ondoren, eta ikerketarako espedientea irekitzea adostu baino lehen, egin beharreko ikerlanaren bidez kototasunaren gaineko aurretiko azterlana egingo dela. Laburbilduz, ikerketarako espedientea abiarazteko oinarri gisa balioko duen informazioa eta dokumentazioa bilduko da.





Halaber, prozeduraren aurretiko fase horretan, bildutako informazioa ikusirik, ondoriozta daiteke ez dagoela arrazoitutako oinarririk pentsatzeko hizpide dugun ondasuna jabetza publikokoa dela eta, ikerketarako espedientea hastea bidezkoa ez dela ebatziz gero, aurretik entzunaldiaren izapide eginda, interesdunak kasuan kasuko alegazioak aurkezteko.

4. OAren 45. artikuluan ezarritako prozedura bera erabiliko da edozein unetan jabari publikoko ondasunen jabetza berreskuratzeko, ikertzeko ekintza udal uziekin bat etorri ondoren (OAren 71. artikulua). Labur esanda, herri-administrazioaren esku zegoen ondasun baten gaineko jabari publikoaren presuntzioa izango litzateke eta aldatzeko eskubiderik ez duen batek edukitza hori legez kanpo aldatu du.

Hortaz, atal honetan eta aurrekoetan adierazitako izapideak eta prozedurak, funtsean, izango lirateke legez kontrako nahasmenduaren presuntzioa duen jabari publikokoa izan daitekeen ondasun baten inguruko informazio-eskaerari edo salaketari erantzuna emateko bideratu beharrekoak.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

37/2011 GOMENDIOA, abuztuaren 22koa, Sopuertako Udalari egina

Interesdunak egindako eskaera ebatz dezan, hizpide dugun eskorga bidearen legezko egoera zehazteko eta, dagokion azterlana baino lehen, beharrezkoa izango balitz, aipatu dugun ondasuna ikertu eta horren edukitza berreskuratzeko espedientea bideratu eta ebazteko.

